

Orain arte eduki dituen **Nissanak** onak izan dira.

EHULKUren aholku honetan ageri diren irudi guztiak irudi libreak dira, Pixabay webgunean lortuak:
<https://pixabay.com/es/>

Enpresa edo marka baten izena¹ enpresa edo marka horrek ekoizten duen objektua, edaria edo materiala izendatzeko erabiltzen denean, letra larriz idazten da izena (izen berezia balitz bezala), baina izen arrunt gisa jokatzeko du morfosintaxiari dagokionez: izen arruntak bezala deklinatzen da, izenondoak hartzen ditu...

- 1) Enpresa- edo marka-izenak, kanpokoak izanda ere, letra biribilean (letra arruntean) idatzi behar dira; ez letra etzanean edo komatxoaren artean.
 - **Renaultek fabrika berria irekiko du.**
 - **Renaultek...*



Adiskide baten **Volkswagen**ean joango dira oporretan.



Ez du inoiz **Renault** horirik erosi.



Prezio onean jarri du salgai bere **Opel Astra Caravana**.




Neguko pneumatikoak aldatu behar ditut.
Dudatan nago zein jarri: **Pirelliak** ala
Michelinak.




Ortoprotesien fabrikazioan, karbono-zuntza
eta **Kevlarra** erabiltzen dira.



Zeuk eraman behar dituzu **Coca Cola Zeroak** jaira;
Schweppesak, neuk.



Gaur ez dugu **Philadelphiarik**¹ ogitartekorako.

- 1) Igurzten den gazta baten izen komertziala da Philadelphia; ez da gazta mota. Gazta moten izenak letra xehez idazten dira: roquefort, cammenbert, gruyere, emmental, cheddar, mozzarella... Baina erne: Burgosko gazta, Cabralesko gazta. 



Medikamentuen izen komertzialak kapsulak, grageak edo dosiak adierazteko erabiltzen direnean, letra larriz idazten dira izenok, eta izen arruntak bezala deklinatzen.

- Gaur goizean gosarian hartu dudan **Gelocatilak** on egin dit: buruko mina kendu dit.
- Zaurian **Betadinea** jarri zioten.
- Bihotzerrea kentzeko, **Almax bat** hartu zuen
- Haginetako mina du, eta daukagu **Nolotilik** botika-kutxan.





Medikamentuen osagai aktiboen izenak, ordea, letra xehez idazten dira:

- Bi medikamentu agindu dizkio medikuak: batak **paracetamol** du; besteak, **ibuprofenoa**¹.
- Ez da edari alkoholikorik edan behar **ferno**barbitala daukan medikamentu bat hartzen denean.

1) Osagai aktiboaren izena medikamentu-izen komertzial gisa erabiltzen denean, bereizi behar da noiz den hizpide medikamentua, eta noiz osagaia.

- Farmazian erosi ditudan **Ibuprofenoek** 600 mg **ibuprofeno** dute.

Marka-izen batzuk lexikalizatu egin dira, eta objektu edo material mota bat izendatzen da haien bidez. Izen arrunt bihurtuta, hiztegian agertzen dira, eta letra xehez idazten, batzuetan grafia aldatuta:


- aspirina
- errimel
- gominola
- jeep
- kleenex
- tiritita
- tuper
- uralita
- zelofan
- ...

Esaterako, *jeep* izenak ez ditu izendatzen marka horretako autoak, baizik auto mota jakin bat:

Gurpil zabalak eta motor indartsua dituen ibilgailu arina, asfaltatu gabeko bide gorabeheratsuetan ibiltzeko gai dena.

(Euskaltzaindiaren Hiztegia)

- Mendian ibiltzeko, **jeep** bat erosi nahi du: **Hummer** bat, segur aski.



Pertsona-izenak ere erabiltzen dira izen arrunt gisa, hala nola margolari baten izena haren margolanak izendatzeko erabiltzen denean.



- Egongelako **Picasso**a kendu, eta, haren ordeez, garajeko **Van Gogha** jarri du.
- Oporren bitartean, **Kansdinsky**ak lapurtu dizkiote.